gara PUBLIZITATE GEHIGARRIA

Museoa baino gehiago?

Gure sagardo naturalak urte asko daramatza museo bat eskatzen. Sagardoaren museak edariaren garapen eta etorkizunari laguntzeko sortu beharko lirateke. Astigarraga eta Hernanik publikoki aurkeztu dituzte jadanik beren proiektuak eta Usurbilek ez du atzean geldituko.

Sagardoari buruz Hernanin egin nahi den museoaren maketa eta biru dimentseloko irudi bat.

Sagardo museo bat martxan jartzeko ideia ez da berria. Edari natural honek bere historia eta kulturarekin erlazionaturiko guztia agertzeko gune berezi bat merezi eta behar du. Baina sortuko den proiektuak ez du bakarrik antzinako eta zaurko tresnak, dokumentuak eta abar erakusteko leku bat nahi, gune biziak nahi ditu, sagardoari gaur egun eta etorkizunean laguntzeko.

Azken urteotan, batez ere, sagardoaren bihotzaren lurraldean dauden herrietan (Astigarraga, Hernani, Urnieta, Usurbil...) ideia eta aurreproiektuak izan dira gogoan, baina orain arte ez da ezer gauzatu.

Orain, epe motz batean, Astigarraga eta Hernanik proiektu serio eta sendoak aurkeztu dituzte. Astigarragak bere Sagardo Etxea eta Hernanik, aldiz, Sagardo Gunea.

Astigarragan, 20.000 metro koadroko sagasti pedagogiko batean, lehen landaketa egin zuten -5.000 metro koadro prestatu dituzte oraingoz- eta orain Kultur Etxea dagoen eraikinean museo bat ipiniko dute laster. Gainera, dastatze gune bat martzan jarriko da lehenbailehen. Proiektu herrek, normala denez, Udalaren eta herriko sagardogileen laguntza dauka eta Sagardun Partzuergoaren eskutik burutzen ari da.

Hernanik Ave Maria esaten dioten parkea aukeratu du bere Sagardo Gunea gauzatzeko. Udal lursailak 22.000 metro koadro ditu eta eraikin bat -lehen tzalet familiar bat zena, 1917. urtean eraikita- bere horretan mantenduko da. Eraikinean Gipuzkoako Sagardo Naturalaren Enpresarien Elkarteak (bulegoak eta zerbitzuak) eta Kalitatearen Kontseilu Arautzaileak izango lukete egoitza. Bestalde, tzalet zahar horren ondoan eraikin berri bat egingo dute, bi solairukoa, museoa eta hainbat zerbitzu kokatzeko. Eraikinaren barnean patio bat egongo da eta bertan sagasti txiki bat jarriko dute.

> Astigarraga eta Hernanik proiektu serio eta sendoak aurkeztu dituzte. Astigarragak bere Sagardo Etxea eta Hernanik, aldiz, Sagardo Gunea

Museoak 865 m2 izango ditu, 6 aretotan banatuta. Bat, etnografiari zuzenduta, beste bat sagardoaren historia ezagutzeko, bi mesgre sagar eta sagardoen gaia jorratzeko, beste bat sagardoaren prozesua eta sagardoaren fertiliak azaltzeko eta azken bat esperimentu esperimentalak egiteko izango dituen bat.

Museoaren diseinua ezezagun ardura. Artelatz konpetiboan emun zelo.

Bestalde, eraikin berrian, nesesez gain, areto nagusia, likoretegia, jatetxea, sagardoa fermentzeko aretoa eta denda bat kokatuko dituzte.

Orain dela gutxi espetatuko aurtengo Usurbilgo Sagardo Egunaren aurkezpenean, antolatzailek herri horrek era bere museo proiektua duela gogoratu zuten. Orain dela bost bat urte egina dago proiektua eta XVI. mendeko dolare-baserrian, Artzabalen, jartzeko asmoa dago. Usurbilen etorkizun ekonomikoa eta kultur zerbitzuen aukera ikaragarri zabalduko liruzkeela uste du Sagardo Egunaren Lagunak elkarteak. Elkarte horren harremanetan museoa martzan jartzea izango da.

Hiru herriotan proiektu berien bidez, bestalde, turismoa bultzatu nahi da eta bisitariei eskaintza erakargarri bat egin nahi zaie.

Udal eta erakunde interesatuak gestionak burutzen ari dira Foru Aldundiaren edo Euskal Gobernuaren diru laguntzak lortzeko, beraien proiektuak aurrera eramaten ahal izateko.